



BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL DE BIZKAIA

Legezko Gordailua / Depósito Legal BI - 1958 - 1

BAO 150. zk. 1994, abuztuak 8. Astelehena

— 9693 —

BOB núm. 150. Lunes, 8 de agosto de 1994

Laburpena / Sumario

	Orrialdea / Página	
I. Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Adminis- trazioa:	9693	I. Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia:
— Batzar Nagusiak	—	— Juntas Generales
— Foru Aldundia:	9693	— Diputación Foral:
— Xedapen orokorrak	9693	— Disposiciones generales
— Iragarkiak	9698	— Anuncios
II. Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Adminis- trazioa	9700	II. Administración Local del Territorio Histórico de Bizkaia
III. Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Adminis- trazioa	—	III. Administración Autónoma del País Vasco
IV. Estatuko Administrazio Orokorra	9719	IV. Administración General del Estado
V. Justiziako Administrazioa	9732	V. Administración de Justicia
VI. Bestelako Herri Administrazioak	—	VI. Otras Administraciones Públicas
VII. Beste zenbait	—	VII. Varios

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral Xedapen orokorrak / Disposiciones generales

Lehendakaritza Saila

Ekainaren 21eko 59/1994 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratarien Erregistroa ezarri eta araupetzeari buruzkoa.

ZIOEN AZALPENEA

Foru kontratu-jarduera antolatu beharra dago, bai eta Bizkaiko Foru Administrazioaren organoekin itunak egin nahi dituzten enpresen jarduketak erraztu ere; hori dela eta, komeni da aurrerengoz Kontratarien Erregistroa ezartzea. Erregistro hori kontratazioaren tresna lagungarri legez hartzen da, eta berak bide eman behar du ezartzen den arautegiak kontratariei eskatzen dizkien funtsezko jakin-garriak biltzeko; horrela saihestuko da, jarduketak errepika daitezzen, horrenbestez, Administrazioaren jarduera bizkortu egingo da, eta enpresari-lehiaketariei kostuak murriztuko zaizkie.

Bestalde, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak horretan dihardu, zer-

Departamento de Presidencia

DECRETO FORAL número 59/1994, de 21 de junio, sobre establecimiento y regulación del registro de contratistas del Territorio Histórico de Bizkaia.

EXPOSICION DE MOTIVOS:

La necesidad de ordenar la actividad contractual foral y, a la vez, simplificar las actuaciones de las empresas que pretendan concertar con los distintos órganos de la Administración Foral de Bizkaia, aconseja la instauración de un Registro de Contratistas que concebido como instrumento auxiliar de la contratación permita reunir los datos esenciales exigidos a los contratistas por la normativa aplicable, evitando así la repetición de actuaciones, con la consiguiente agilización de la actividad administrativa y reducción de costes para los empresarios concurrentes.

A su vez, la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, incide en

tan-eta tramiteak erraztu eta agiriak behin eta berriro ez aurkezteko joera horretan; eta hori neurri handi batean lortuko da erregistro hori ezartzen denean; bide batez, Foru Administrazioak deitzen dituen lizitazioetara agertzen diren enpresei eskatzen zaizkien beharkizunak behar bezala kontrolatuko ditu Administrazioak.

Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere burua antolatzeke duen gaitasuna erabiliaz, gaitasun hori beren beregi aintzatetsita duelarik Auzitegi Gorenak emanik dituen epai batzuen bidez, epaion artean arestienekoa den 1992.eko uztailaren 6koa nabarmentzen dela, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratarien Erregistroa ezarriko da lehen aldiz, berak foru kontratu-jardueraren hobekuntza handiagoa ekarriko duelakoan.

Hori dela eta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakunde-en Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardupideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, Foru Aldundiak 1994.eko ekainaren 21ean egindako bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratarien Erregistroa ezarri eta araupetzeari buruzko dekretua onestea, eta beraren testua jarraian erantsiko da.

Bigarrena: Argitara bedi Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO KONTRATARIEN ERREGISTROA EZARRI ETA ARAUPETZEARI BURUZKOA

1. artikulua

1.—Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontratarien Erregistroa administrazio kontratazioa laguntzeko tresna legez ezarri da, kontratazio espedienteak bizkorrago tramitatzeko, eta bera Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde eta organoek erabil dezaten, behar dituzten kontsulta guztietarako.

2.—Erregistro hau Lehendakaritza Foru Saileko Kontratazio Zerbitzuaren antolaketaren barruan sartuko da, administrazio kontratazioaren tresna lagungarri legez, dekretu honetan ezarrikoaren arabera.

2. artikulua

Erregistroak eragina izango du Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazio osoan, administrazio horrek jardutean zuzenbide publikoaren menpean egon behar duenean, eta Lurralde Historikoko beste herri administrazioek erabiliko dute nahi duten neurrian.

3. artikulua

1.—Erregistroan dauden jakingarriak euskal herri administrazioetako organoen esku egongo dira, eurek informazioa jaso eta kontsultak egin ahal izan ditzaten.

2.—Erregistroaren edukia publikoa izango da, norentzat-eta beraiek jakiteko legebidezko interesa dutela benetakotzen duten norbanakoentzat.

3.—Erregistroko jakingarrien edukia jakiteko, honako bide hauek daude:

- Haien kontsulta interesatuek eurek egitea.
- Informazio-orri bakuna.
- Erregistroko teknikari arduradunak luzatzen duen ziurtagiria, eta bera izango da haietan dauden ezaugarriak sinesgarriro benetakotzeko modu bakarra.

4. artikulua

Kontratarien Erregistroaren jarduketek, eta informazio-orriek eta hark luzatzen dituen ziurtagiriek ez dute tasarik sortaraziko, ez eta ordainarazpenik ere.

5. artikulua

Erregistroa arteztu, norbanakoek aurkezten dituzten idazki eta agiriak aztertu eta onartu, beraiek egiaztatu eta kautotu, erregistroko inskripzioak, eta, oro har, erregistroaren jardupide zuzen eta

esta línea de simplificación de trámites y eliminación de reiteraciones documentales, que en buena medida se conseguirá con la implantación de este Registro, a la vez que permitirá, también, un adecuado control administrativo de los requisitos exigidos a las empresas concurrentes a las licitaciones convocadas por esta Administración Foral.

En consecuencia, la Diputación Foral de Bizkaia en uso de su capacidad de autoorganización, expresamente reconocida en esta materia por diversas sentencias del Tribunal Supremo, entre las que destaca como más reciente la de 6 de julio de 1992, procede a implantar este Registro de Contratistas del Territorio Histórico de Bizkaia, en la inteligencia de que el mismo redundará en una importante mejora de la actividad contractual foral.

Por todo ello, y de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, previa deliberación y aprobación por la Diputación Foral en reunión celebrada el día 21 de junio de 1994, por el presente Decreto

DISPONGO:

Primero: Aprobar el Decreto sobre establecimiento y regulación del Registro de Contratistas del Territorio Histórico de Bizkaia, cuyo texto se adjunta a continuación.

Segundo: Disponer su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA SOBRE ESTABLECIMIENTO Y REGULACION DEL REGISTRO DE CONTRATISTAS DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

Artículo 1

1.—El Registro de Contratistas del Territorio Histórico de Bizkaia se establece como medio de apoyo a la contratación administrativa, que agilice la tramitación de los expedientes de contratación y del que puedan valerse las instituciones y órganos del Territorio Histórico de Bizkaia para cuantas consultas fueran necesarias.

2.—Este Registro se organizará dentro del Servicio de Contratación del Departamento Foral de Presidencia, como instrumento auxiliar de la Contratación Administrativa conforme a lo prevenido en este Decreto.

Artículo 2

El Registro extenderá su eficacia a la totalidad de la Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia sometida en su actuación a Derecho Público, siendo su utilización facultativa para otras Administraciones Públicas del Territorio Histórico.

Artículo 3

1.—Los datos que obren en el Registro estarán a disposición de los órganos de las Administraciones Públicas Vasca para su información y consulta.

2.—El contenido del Registro será público para los particulares que acrediten un interés legítimo en su conocimiento.

3.—El conocimiento del contenido de los datos registrales podrá materializarse por medio de:

- Consulta directa de los mismos por el interesado.
- Nota simple informativa.
- Certificación expedida por el Técnico responsable del Registro, que será el único modo de acreditar fehacientemente los particulares obrantes en los mismos.

Artículo 4

Las actuaciones del Registro de Contratistas, así como las notas informativas y las certificaciones por él expedidas, no devengarán tasa ni exacción alguna.

Artículo 5

La llevanza del Registro, el examen y admisión de escritos y documentaciones presentadas por los particulares, la compulsión y autenticación de los mismos, las inscripciones registrales y, en gene-

eraginkortasuna bermatzera jotzen duten jarduketa guztiak egingo ditu, nork-eta Erregistroko teknikari arduradunak; hori zuzenbideko lizentziaduna izango da eta Lehendakaritza Saileko Kontratazio Zerbitzuari atxikiko zaio, eta laguntzaile legez behar dituen administrari guztiak izango ditu.

6. artikulua

Teknikari horren erantzukizuna izango da Erregistroan dauden jakingarri, agiri eta informazio guztiak organo eskudunen eskura jarri eta beraiei igortzea, baina horretarako organo edo agintari eskudunak agindei egokia egin beharko du lehendaurrez.

7. artikulua

Erregistroan inskribatzeko eskabidea kontratari guztiak egin dezakete, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazio organoekin obra kontratuak, herri zerbitzuen kudeaketakoak, hornidurenak eta enpresa aholkulari edota zerbitzueterakoekin urgazpen teknikoak ematekoak, bai eta administrazio jiteko beste edozein egiteko moduan badaude.

8. artikulua

Inskripzioa norbere borondatezkoa da, eta bertan egonagatik ez da ezetariko abantailarik aterako berdintasun eta lehia askearen abiaburuen aurka doanik.

9. artikulua

Erregistroko inskripzioak kenduko die kontratariei, zer-eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioak deitzen dituen lizitazioetan Erregistroan behar bezala erasota dauden agiriak aurkeztea. Hala eta guztiz ere, artikulua honetan xedaturikoari heltzen dioten lizitatzailerak guztiak zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, eta bertan segurtatuko dute Erregistroa eroandako jakingarriek balio dutela eta indarrean dirautela.

Inskribaturik dagoen enpresaria lizitazio batera joaten denean, baldin eta Erregistroko lekukotasunetan aldakuntzarik gertatua bada, eginak diren zuzenketak benetakotzen dituzten agiriak eroan behar dira.

10. artikulua

Erregistroan dauden jakingarri eta agiriak Bizkaiko Lurralde Historikoko herri administrazioetarik edozeinen esku egongo dira. Hala ere, administrazio horiek onartu ahal izango dituzte, zertzuk-eta Kontratarien Erregistroak luzatzen dituen ziurtagiriak, zertarako-eta lizitatzailerak aurkeztu ez ditzaten Erregistroak dituen agiriak.

11. artikulua

Inskripzioa egiteko eskabideak Kontratarien Erregistroan aurkeztuko dira, zelan-eta eredu normalizatuaren bitartez; eredu horrek ondoko edukiak izango ditu:

- 1.—Enpresariaren beraren jakingarriak edo, bestela, sozietatearenak, bai eta administrazio eta kudeaketako lanak egin behar dituzten pertsonen zerrenda ere.
- 2.—Teknikari eta administrariaren zerrenda.
- 3.—Enpresaren esperientziari buruzko jakingarriak.

Lehendakaritza Saileko diputatuaren foru agindu baten bidez zehaztuko dira inprimaki normalizatuak, eta beraietan egon behar dute lehen adierazitako eduki guztiak. Inskripzio espedientean manuz egon behar duten jakingarriak eta artikulua honetako hiru ataletan zehaztu direnak aldarazi, zabaldu edo murriztu ahal izango dira Lehendakaritza Saileko diputatuaren foru agindu baten bidez, hemen arautzen den Erregistroa ezarri eta garatzen den epealdian zehar hartzen den esperientziaren arabera.

12. artikulua

Inskribatzea aukeratzen duten kontratariek eskabideari ondoko agiriok erantsi beharko dizkiote:

A) Legezko alderdiei buruzkoak:

1.—Eraketa eskritura, erregistro publikoetan behar bezala inskribaturik dagoena; edo NAN, norbanako enpresari dagoena.

ral, cualquier actuación encaminada a asegurar el correcto funcionamiento y operatividad del mismo, se realizará por medio del Técnico responsable del Registro, que será un Licenciado en Derecho adscrito al Servicio de Contratación del Departamento de Presidencia, auxiliado en su labor por el personal administrativo necesario.

Artículo 6

La función de puesta a disposición y transmisión a los órganos competentes de cuantos datos, documentos e informaciones se contengan en el Registro será de la responsabilidad de éste, siempre que exista el necesario requerimiento por parte del órgano o autoridad competente.

Artículo 7

Podrán solicitar la inscripción en el Registro los contratistas que se encuentren en disposición de celebrar con los distintos órganos administrativos del Territorio Histórico de Bizkaia, contratos de obras, de gestión de servicios públicos, de suministros y de asistencia técnica con empresas consultoras o de servicios, así como cualesquiera otros de naturaleza administrativa.

Artículo 8

La inscripción será totalmente voluntaria y de la misma no se derivará ventaja alguna que atente a los principios de igualdad y libre competencia.

Artículo 9

La inscripción registral liberará a los contratistas de la obligación de presentar en las licitaciones convocadas por la Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, aquella documentación que haya sido debidamente registrada. No obstante, todo licitador que se acoja a lo dispuesto en el presente artículo deberá presentar una declaración responsable en la que se asegure la validez y vigencia de los datos aportados al Registro.

Siempre que el empresario inscrito concurra a una licitación y se hubieran producido alteraciones en los testimonios registrales, se verá en la obligación de aportar la documentación acreditativa de las rectificaciones habidas.

Artículo 10

Los datos y documentos obrantes en el Registro estarán a disposición de cualquier Administración Pública del Territorio Histórico de Bizkaia. Asimismo, estas Administraciones podrán admitir las certificaciones que el Registro de Contratistas expida, en orden a eximir a los licitadores de presentar aquellos documentos que el Registro contenga.

Artículo 11

Las solicitudes de inscripción se presentarán ante el Registro de Contratistas mediante el correspondiente modelo normalizado en el que se contengan, como mínimo, los siguientes extremos:

- 1.—Datos personales o, en su caso, sociales del empresario, así como la relación de personas que tengan encomendadas las labores de Administración y Gerencia.
- 2.—Relación de personal técnico y administrativo.
- 3.—Datos referentes a la experiencia empresarial.

Por Orden Foral del Diputado del Departamento de Presidencia se determinarán los impresos normalizados en los que se contengan los extremos anteriormente indicados. Los datos que han de figurar preceptivamente en el expediente de inscripción y que han quedado explicitados en los tres apartados de este artículo, podrán ser modificados, ampliados o restringidos, mediante Orden Foral del Diputado del Departamento de Presidencia, según lo aconseje la experiencia acumulada durante el período de implantación y desarrollo del Registro aquí contemplado.

Artículo 12

Aquellos contratistas que opten por su inscripción deberán adjuntar a la solicitud la siguiente documentación:

A) Relativa a aspectos legales:

1.—Escritura de constitución debidamente inscrita en los Registros Públicos correspondientes o D.N.I., en el caso de empresarios individuales.

2.—Ahalduntze-eskritura, sozietate-enpresaren ordezkaritza eratzikitzekoa.

3.—Erantzukizunpeko beren beregiko aitortpena, izan ere, kontratariak Administrazioarekin kontratuak egiteko bateraezintasunetarik batere ez duela adierazten duena.

B) *Tributu betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzkoak:*

1.—Azken ekitaldiko Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren ordain frogagiria, eta bera inskribaturik dagoeneko jarduera-epigrafeena.

2.—Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren, zerga bien kontura egindako ordainketen edota zatikako ordainketen edota atxikipenen, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren azken aitortpenak edota sarrera-agiriak; edo eskudun administrazioek luzatzen duten ziurtagiria, eta berorretan ogasun eta tributu jitezko betebeharrak itxura eta edukia aldetik beteta daudela benetakotuko dira.

3.—Sarrera eta ordainketen azken urteko aitortpena, izan ere, uztailaren 8ko 1.913/1978 Erret Dekretuak aitatzten duena.

4.—Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria; bertan agertaraziko da kontratariak kuotak ordainduta dituenentz eta, beharrezko bada, TC1 eta TC2 agiriak erantsiaz osatuko da.

5.—Tributuei buruzko agiriei eta sozietatearen betebeharrak beteta daudenentz agertzen dutenek ez dute eraginik izango, baldin eta urteko bakoitzean aurkezten ez badira Erregistroan aurretiko ekitaldiari dagokion ordain frogagiriak. Epe horretan zehar, borondatezko ordain epealdia igarota ez bada, epealdi hori amaitu eta ondorengo egutegiko hogeita hamar egunen buruan ordainketa egingo dela benetakotzen duten agiriak ekarri beharko dira.

6.—Urteko berrikuntzaren eragina osatuko da, zelan-eta organo eskudunek luzatzen dituzten ziurtagiriak ekitaldi bakoitzeko irailan zehar ekarriaz, eta benetakotu beharko da kontratariak ogasun- eta zerga-betebeharrak beteta dituela, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere. Aurkezpen horren diligenza Erregistroko teknikari arduradunak egin beharko du, eta behar den benetakotze-agiria luzatuko du.

7.—Aurreko ataletan aitatu diren berrikuntzek, agiriei dagozkienek, erabakiko dute zeintzuk diren erregistro inskripzioetik luzatzen diren ziurtagiriei duten indarraldia, hortaz, garaiz berritzen ez badira, berez iraungiko dira.

C) *Enpresaren ahalbideari buruzkoa:*

Kontratariaren sailkapenaren ziurtagiria, Administrazio Kontratazioaren Kontsulta batzak edo, bestela, Autonomi Elkartearen dagoen haren erakunde baliokideak luzatzen duena.

13. artikulua

Ekartzen diren jakinarriak eta agiriak zinezkoak diren egiaztatzeko, Erregistroko teknikari arduradunak, beharrezkoesten dituen txosten eta benetakotze-agiriak edonoz eskatu ahal izango dizkie inskribaturik dauden enpresariei zein inskribatzeko daudenei.

14. artikulua

Araudi honek adierazten dituen agiriak behar bezala aurkeztu bezain laster, erabakiko da enpresaria Kontratariaren Erregistroan inskribatzeko Lehendakaritza Saileko diputatuaren foru agindua baten bitartez, eta inguruabar hori jakinaraziko zaio interesatuari hamar eguneko epean. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean aldi-aldian argitaratuko da Erregistroan indarrean dirauten ziurtagiriak dituzten kontratariaren zerrenda.

15. artikulua

Inskripzio espediente bakoitzari Erregistroko zenbaki bat esleituko zaio, eta behar diren tresna guztiak gertatuko dira ahalik eta lasterren topatzeko.

16. artikulua

Inskripzioa eragina galduko du, bera jakinarazten den egunetik bost urteko epea igarotzeagatik. Baliogarritasunaren azken seihila-betekoan zehar, nahi duen enpresariak eragin beharko dio espediente

2.—Escritura de apoderamiento por la que se atribuye la representación del empresario social.

3.—Declaración expresa responsable de no hallarse incurso el contratista en causa alguna de incompatibilidad para contratar con la Administración.

B) *Relativas al cumplimiento de las obligaciones tributarias y de seguridad social:*

1.—Justificante del pago del Impuesto de Actividades Económicas del último ejercicio y de los epígrafes de actividad en los que figura inscrito.

2.—Últimas declaraciones y/o documentos de ingreso del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades, de los pagos a cuenta o fraccionados o de las retenciones a cuenta de ambos y del Impuesto sobre el Valor Añadido, o Certificado expedido por las Administraciones correspondientes, en el que se acredite el cumplimiento de obligaciones formales y materiales de carácter fiscal y tributario.

3.—Última declaración anual de ingresos y pagos a que se refiere el Real Decreto 1.913/1.978, de 8 de julio.

4.—Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social expresando que el contratista se halla al corriente del pago de cuotas, complementado, si fuera preciso, con los correspondientes documentos TC1 y TC2.

5.—Esta documentación de carácter tributario y de cumplimiento de obligaciones sociales no mantendrá su eficacia, si en el primer trimestre de cada anualidad no se presentaran ante el Registro los justificantes de pago relativos al ejercicio precedente. En caso de que durante el citado plazo no hubiese transcurrido su período de pago voluntario, se deberán aportar los documentos acreditativos del pago en el término de treinta días naturales contados a partir de la finalización de tal período.

6.—La eficacia de la renovación anual se complementará con la aportación durante el mes de Septiembre de cada ejercicio, de certificaciones expedidas por los órganos competentes, acreditando que el contratista se halla al corriente del pago de obligaciones fiscales y tributarias así como de Seguridad Social. Esta presentación se diligenciará por el Técnico responsable del Registro, que emitirá el correspondiente documento acreditativo.

7.—Las renovaciones de documentación a las que se hace referencia en los apartados anteriores determinarán los períodos de vigencia de las certificaciones de inscripción registral que se emitan, de forma que la no renovación en plazo supondrá su automática caducidad.

C) *Relativa a la capacidad empresarial:*

Certificado de clasificación del contratista, expedido por la Junta Consultiva de Contratación Administrativa o, en su caso, órgano equivalente de la Comunidad Autónoma.

Artículo 13

El Técnico responsable del Registro podrá recabar en cualquier momento de los empresarios inscritos o pendientes de inscripción cuantos informes y acreditaciones estime necesarias para comprobar la veracidad de los datos y documentos aportados.

Artículo 14

Tan pronto como fueran correctamente presentados los documentos que por este Reglamento se señalan, se determinará la inscripción del empresario en el Registro de Contratistas mediante Orden Foral del Diputado del Departamento de Presidencia, circunstancia que será notificada al interesado en el plazo de diez días. Periódicamente se publicará en el "Boletín Oficial de Bizkaia" la relación de contratistas en posesión de certificaciones registrales vigentes.

Artículo 15

A cada expediente de inscripción se le asignará el correspondiente número registral, confeccionándose los instrumentos necesarios para su pronta localización.

Artículo 16

La inscripción perderá eficacia por transcurso del plazo de cinco años a partir de su notificación. Durante el último semestre de validez el empresario interesado deberá promover expediente de

bati, zertarako-eta eskatzen diren agiriak eguneratu eta berriro ikusteko. Horrela ez egitera, kontratariari entzunaldia eman ondoren, inskripzioa deuseztatu egingo da, indarraldia behin igaro eta gero.

17. artikulua

Inskribaturik dagoen enpresariak berehala jakinarazi beharko dizkio Erregistroari ondoko inguruabarrak:

1.—Ematen den ordezkartzan gertatzen diren aldarazpen guztiak, bai eta kontratariaren nortasunaren iraungipena ere.

2.—ndarrean dirauen legeriak Administrazioarekin kontratazkeo ezarrita dituen bateraezintasun karietarik edozein duelakoa.

3.—Edukiari dagozkion aldakuntzak, sozietatearen xedearenei edota enpresariaren nortasun juridikoari dagozkienak batipat, baldin eta kontratazio araubidea eragina ekartzen badiote.

18. artikulua

Lehendakaritza Saileko foru diputatuak ahalmena izango du kontratariren baten inskripzioa adi baterako edo behin betiko eten behar dela erabakitzeke, interesatuari entzunaldia emandakoa, eta administrazio espedientea eratu ondoren, baldin eta hark Erregistroan dituen jakingarriak edota agiriak aizunak badira, edo horiek zehazkabetasun garrantzitsuak badituzte; gauza bera erabaki deza ke aurretiko artikuluan adierazitako manuzko jakinarazpenak egin da ez dituenari dagokionez.

19. artikulua

Inskripzioaren aldi baterako edo behin betiko etendurarekin batera, kontrataria ezgaitu ahal izango da, zertarako-eta Foru Administrazioarekin kontraturik egin ez dezan, indarrean dirauen legeriak horretara xedatzen duenetan; hori gora-behera, gerta litezkeen erantzukizunek indarrean diraute, horietarik Foru Administrazioari egiten zaizkion gaitz-kalteen ziozko ordaina emateko dagoen egin-beharra etor litekeelarik.

20. artikulua

Erregistroko teknikari arduradunak luzatzen dituen ziurtagiriek sei hilabeterako izango dute balioa, eta urtebetez luzatu ahal izango da epe hori; baina horretarako, agirien urteko berrikuntzak irailan zehar eginda egon behar du, eta hori 12.B.7. artikuluan ezarritako moduan benetakotuko da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarriko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeigunegunetara.

Bilbon, 1994.eko ekainaren 21ean.

Diputatu nagusia,
JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI

Lehendakaritzako foru diputatua,
IGNACIO J. ETXEBARRIA ETXEITA

(I-1.384)

actualización y revisión de la documentación exigida. Si así no lo hiciera, y previa audiencia al contratista, se procederá a la anulación de la inscripción, una vez transcurrido su plazo de vigencia.

Artículo 17

El empresario inscrito estará en la obligación de poner inmediatamente en conocimiento del Registro las siguientes circunstancias:

1.—Cualquier modificación producida en la representación conферida así como la extinción de la personalidad del contratista.

2.—La inclusión en cualquiera de las causas de incompatibilidad para contratar con la Administración establecidas por la legislación vigente.

3.— Toda alteración de carácter sustancial, especialmente las que se refieran al objeto social o a la personalidad jurídica del empresario, que afecte al régimen de la contratación.

Artículo 18

El Diputado Foral del Departamento de Presidencial, previa formación de expediente administrativo con audiencia al interesado, estará facultado para acordar la suspensión temporal o, en su caso, definitiva de la inscripción de aquel contratista del que obren datos o documentos registrables que incurran en falsedad o revistan inexactitudes relevantes, así como la de aquel que no haya efectuado las comunicaciones preceptivas indicadas en el artículo precedente.

Artículo 19

La suspensión temporal o definitiva de la inscripción podrá ir acompañada de la inhabilitación del contratista para contratar con la Administración Foral, en aquellos casos en los que la legislación vigente así lo disponga, sin perjuicio de las responsabilidades a las que hubiera lugar y de las que podría derivarse el deber de indemnizar a la Administración Foral por los daños y perjuicios causados.

Artículo 20

Las Certificaciones emitidas por el Técnico responsable del Registro tendrán una validez semestral prorrogable a un año siempre que se haya procedido a complementar durante el mes de Septiembre la renovación anual de documentación, lo que se acreditará en la forma prevista en el artículo 12.B.7.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

En Bilbao, a 21 de Junio de 1994

El Diputado General,
JOSE ALBERTO PRADERA JAUREGI

El Diputado Foral de Presidencia,
IGNACIO J. ETXEBARRIA ETXEITA

(I-1.384)